



Funtsezko baliabideak

Enpresa baten funtsezko baliabideak hiru kategori desberdinetan sailkatzen dira, beraz, gure enpresa aurrera eramateko, *baliabide fisikoei* dagokionez, bost ordenagailu beharko ditugu gure lana ondo betetzeko, hortaz aparte, lokal bezala erabiltzeko lankide baten garajea erabiliko dugu, aurretik aipatu bezala, gazteak izanik, ezin izango dugu lokal batek dituen gastu guztiak ordaindu. Azkenik, ezinbestekoa ikusten dugu, lan egiteko behar dugun materiala, hala nola, eskolako materiala, honetaz aparte, beharrezkoa den wifi konexioa ere garrantzitsua dela ikusten dugu, hau gabe ezin izango genuen gure proiektua aurrera eraman.



Baliabide intelektualak eta giza-baliabideak aztertuz, lankide bakoitzak funtzio desberdin bat betetzen du proiektu honetan. Ainhoak, aplikazioaren publizitate diseinuan arituko da, sormenean duen ahalmena erakutsiz. Itziar, "social media manager"-a, hau da, sare sozialen arduraduna, aplikazioaren sare sozial desberdinak kudeatzeaz arduratuko da. Manexek duen gastuak kontrolatzeko gaitasuna izanik, enpresaren administrazioaz arduratuko da. Ibon berriz, bezeroekin harremanetan egoteko funtzioa beteko du, guretzat bezeroak oso garrantzitsuak baitira. Azkenik, Danelek informatikako lanak egingo ditu, aplikazioa eguneratzen arituko da edo edozein arazo informatikori irtenbide bat aurkitzen saiatuko da.



Finantza-baliabideak ikertuz, erantzukizun mugatuko sozietatea izanik, proiektuari hasiera bat eman ahal izateko bakoitzak kapital kopuru bat ipintzea pentsatu dugu. Gure kasuan, bakoitzak 1000€ jarriko ditu, hasiera batean beharrezkoa ikusi dugun kopurua da.

SL

\$1000